

**BizkaIdatz IX.  
Literatura Saria**

*Zaunkak*

Karmele Jaio

© Karmele Jaio Eiguren, 2017  
© Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia.

Antolatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara eta Kultura Saila

Koordinatzailea: Álex Oviedo eta Montsi Petralanda  
Azala: Mikel Apodaka

Lehenengo edizioa: 2017ko apirila

Inprimaketa: Gráficas CTP  
Lege Gordailua: BI-543-2017



**A**rrak, artzain aleman iletsuak, ipurtzuloa usaindu dio emeari, kanela koloreko setter irlandesari. Edurnek zeharka begiratu dio arraren jabeari, txakurra geldiarazteko asmorik baduen egiaztatu nahian. Tinba otzal dago eta auzoko txakur ar guztiak datozkio usaintzera eta ganka egiten saiatzera, eta Edurne adi dabil halakorik gerta ez dadin.

Artzain alemanak eta setter irlandesak ondo ezagutzen dute elkar. Neguan egunero jolastu dute elkarrekin parkean, elkar usaindu dute, elkar miazkatu. Euren jabeek, bitartean, zeharka begiratu diote elkarri eta ez

dute sekula euren artean hitz egin. Gehienez, bekainak altxatu dituzte gurutzatu direnean.

Zeharkako begirada horietan, baina, Edurnek izan du gizona goitik behera begiratzeko aukera. Bai, ondo geratzen zaizkio praka bakeroak. Izango ditu hark ere ia berrogeita hamar, baina ez du bere burua abandonatzen duten adin horretako gizonen traza. Ternuako txamarra hori hogeita hamarreko batek ere jantziko luke.

*Tinba, hona! Tinba, hona!*

Edurnek etengabe deitzen dio txakurrari, baina honek ez du zirkin egiten, artzain alemanari popa erakusteko ez bada.

Txakurraren jabeari begiratzen dion bezala, hala begiratzen die noizbehinka Edurnek bulegoan ikusten dituen hainbat gizon funtzionarioei ere, edo etxe alboko super-

merkatuaren aurrean astearte eta ostiraletan fruta kaxak deskargatzen dituen gazteari, edo autobuseko markesinetan kolonia iragartzen duten gizonezko gorputz gihartsuei. Gizonei begiratzen die, baina inolako asmorik gabe, eurengana gerturatzeko inolako intentziorik gabe, begiratzeko asmoarekin bakarrik, eta bide batez, haien gorputz biluziak imajinatzen ditu. Pantailaren bestaldetik begiratzen duenak bezala, horrela begiratzen die, kristal ilun baten bestaldean balego bezala, gizonek inoiz bera ikusiko ez dutela barneratuta.

Horrela begiratzen dio bada arratsaldero, etxera afaltzera igo baino lehen, parkean ikusten duen txakurraren jabeari. Gaur gizona inoiz baino adiago dago txakurrei begira. Bere arra bero dabil Tinbaren inguruan, eta Tinbak behin eta berriz erakusten dio popa. Txakurrak une batetik bestera elkarrengandik banatzeko prest dago, adi

haien mugimendu bakoitzari, gorputza aurrerantz botata, ehizako txakurra harrapakinaren aurrean nola. Noizbehinka dei egiten dio bere txakurrari, baina oihurik bota gabe, ahopeka ia, emearengana gehiegi ez hurbiltzeko ohartaraziz: *Jaaatoor, Jaaatoor...* Tinbari modu arriskutsuan gerturatzen zaionean.

Tinba opari bat izan zen, senar ohiak erosi zion Edurneri. Egun batean txakurkumearekin agertu zen etxean, harekin bere amatasun sena baretuko zuelakoan. Urteak zeramatzan senarrari haur bat eduki nahi zuela esaten: kuadrillako bikoteen artean umerik ez zuten bakarrik zirela, adina pasatuko zitzaiola, funtzionarioa izanda erraztasun handiak zituela..., argudio guztiak erabili zituen, baina hark ezetz, haurrak tranpa bat zirela. Umeak izatea norbanakoa ezeztatzeko modurik eraginkorrena zela. Azkenean, baina, senarrak bere indibidualtasuna

beste emakume batekin partekatzea erabaki zuen, eta ordutik Edurne eta Tinba bakarrik bizi dira. Zortzi urte jada. Tinba umea balitz Lehen Hezkuntzako bigarren mailan ibiliko litzatekeela pentsatu du behin baino gehiagotan, bereziki elkarteko larunbatetako afarian bere lagunek euren seme-alabei buruz hitz egiten dutenean.

Gizonak bizkarra eman dio une batez. John Wayneri bezala geratzen zaizkio galtzak. Eta Edurnek ondo daki zelan geratzen zaizkion John Wayneri, ostiraletan izan ezik, aste barruko arratsalde guztiak igarotzen baititu amaren etxean, hari konpainia egiten, ETBko bakeroen pelikulak elkarrekin ikusten. Ostiraletan gizarte-etxera arte laguntzen du, eta han uzten du lagunekin kartetan jolasten.

Ez da gaurkoa artzain alemana Tinba usaintzera hurbildu den lehen eguna, baina gaur gogo handiagoz egin du, intentzio gehiagoz. Gizonak txakurraren uhala dauka

eskuetan. Esku iletsuak ditu, indartsuak. Zein lanbide ote duen asmatzeko saiakera egin du askotan. Sindikalista baten antza du. Jaurlaritzaren bulegoetatik manifestazio deialdiak banatzen dituzten horiek datozkio gogora. Ez daki zer gertatzen zaion sindikalistekin eta era guztietako manifestari, grebalari eta bere amak esaten duen bezala, “protestanteak” direnekin. Erakarri egiten dute. Gizona ez da gaztea, baina gazteekin egotera ohitutako heldua ematen du, eta horrek gaztetu egiten du. Haren eskuak hamaika pankarta eramandakoak direla pentsatu du, eta bat-batean, bere imajinazioko pankarta toalla zuri bihurtu da, eta gizona imajinatu du dutxatik irteten, papar iletsua ur tantaz zipriztindua. Galtzarpetik pasatu du toalla zuria eta Edurnek pentsatu du: zenbat denbora papar iletsu bat ukitu gabe. Zortzi urte bai behintzat.

Orain imajinazioa erabili behar izaten du gauetan bere



ohe hotza berotzeko. Batzuetan pelikula bateko aktorea izaten da, beste batzuetan lantokian ikusitako sindikalista gazteren bat, edo Teleberrian manifestazio baten ondoren adierazpenak egin dituen bozeramaileraren bat. Ez daki zer gertatzen zaion “protestanteekin”. Erakarri egiten dute. “Zakur zaunkalariak, hozkarik ez” entzuna dio amari askotan, telebistaren aurrean norbait protestata ikustean. Amak ezin du “protestanteekin”, bereziki sindikalistekin, haren senarra lantegi handi bateko jabea izan zelarik, gauero afal orduan entzuten zuelako sindikalisten eta grebalarien kontrako hainbat hitz eta kexa. Edurnek txikitatik entzun ditu ere halakoak aitaren ahotik, eta inoiz pentsatu du hain zuzen horregatik bihurtu direla sindikalista eta manifestariak desio objektu bere irudimenean, haienganako sinpatia, eta are gehiago desioa, galarazitako zerbait bezala sentitu duelako beti.

Azken urteetan Tinbari ez bezala, berari ar gutxi hurbildu zaizkio. Ez du aukera handirik gizonak ezagutzeko. Aste barruan amaren etxean eta aste bukaeretan ezkondata zegoen garaiko lagunekin, denak bikoteak, ez da erraza. Eta askotan pentsatu du baten bat gerturatz gero ere, ez litzatekeela ausartuko gizon bati bere gorputz biluziaren usainak erakusten. Banandu zenetik hona, konturatu da lotsa ematen diola bere usainak, bere usaina ez delako garai batekoa. Hamazortzi urterekin ez zeukan arazorik bere gorputz biluzia mutilagunari eskaintzeko. Baina berrogeita bederatzirekin, gero eta azal usain handiagoa duela sentitzen du; orain hasi da ulertzen nola sortu daitekeen usain jasanezin eta itogarri hori zahar etxeetan. Eta amak ostiraletan lagunekin kartetan egiten duen mahai-inguruan.

Goizetan, gosaldu orduko, ezer egin baino lehen, dutxa

hartzen du. Urgentziaz sartzen da ur azpira, gogoz garbitzen ditu azpialdeak eta galtzarpeak. Bere usain guztiak urarekin batera doazela ikusteak lasaitzen du, bere buruaz gustatzen ez zaizkion guztiak dutxako hustubidetik joaten ikusiko balitu bezala. Gero, eguerdira arte uzten du bere logelako leihoa irekita, gorputz eta arnas usaina desagerrarazteko, bere gorputzaren usaina atzetik segika duen mamu bat balitz bezala.

Ez du ausardiarik bere usain guztiekin inori “hemen nago eta har nazazu” esateko. “Ni naiz ni eta nire usain guztiak” esateko. Gorputza ez da gela bat, ezin da egun osoa aireztatzen utzi, leihoa parez pare irekita, eta beldur ematen dio gizon batek, bere gorputzetik hain gertu, bere azalean gelditasunaren usain hezea adituko ote dion. Gizon batek bere gorputzean ganbara usaina aditu ahal izateak izutu egiten du. Beldurra sentitzen du desioaren

gainetik. Horregatik gizonei begiratu egiten die, besterik ez, urrunetik, gehiegi gerturatzeko benetako asmorik gabe.

Artzain alemana ekin eta ekin dabil Tinbaren popa usaintzen, eta Edurnek pentsatu du agian zerbait esan beharko liokeela gizonari, txantxa bat egin edo, baina lotsa ematen dio. Hitz egiten duten lehen egunean sexuaz egiteak lotsa ematen dio. Zer esango dio ba: Bero dabil zure txakurra, e? Lotsagarri ikusten du bere burua ahoa irekiz gero, lekuz kanpo. Nola hitz egin daiteke ezezagun batekin lehen hitzean sexua aipatuz, zakar eta baldar agertu barik?

Ez dute inoiz hitz egin gainera. Ez diote inoiz elkarri begietara begiratu edo keinurik egin. Baina Edurnek ez daki segundu bakar batean hori aldatu egingo dela. Justu orain.

Udaberriko haize leuna altxatu da eta aireak berarekin dakarren polena sudur zuloetatik sartu zaionean, konturatu barik, bere barnetik eztanda bat atera da, doministiku bat. Eta doministikuak gizonarengandik babesten zuen kristala hautsi du.

—Jesus —esan du arraren jabeak. Pentsatu gabe atera zaiola ematen du, konjelatuta lantzerik geratu baita hitza bota ondoren.

Bi txakurrak geldi-geldirik geratu dira baita ere une batez, belarriak tente. Edurneren erantzunaren zain egongo balira bezala. Mundua bat batean gelditu izan baltz bezala sentitu du Edurnek. Eta azkenean ausartu da erantzutera:

—Eskerrik asko —esan du belarrera begira.

Eta une horretan bertan, Edurneren hitzek hezi bat

ireki izan balute bezala, artzain alemanak aurrealdeko hankak gora eramane eta Tinbaren bizkar gainean jarri ditu. Arra bi hanken gainean saltoka ari dela, Tinbaren uluak entzun dira parkean.

Karmele Jaió 

\*Karmele Jaioren ipuin honi amaiera gehitu nahi izanez gero, hurrengo orrialdeko oinarriak irakur itzazu.

## BizkaIldatz IX. Literatura Saria (2017) - Deialdiko Oinarriak “JARRAITZEKO PREST? ORAIN ZURE TXANDA DA”

Bizkaiko Foru Aldundiako Euskara eta Kultur Sailak, Bizkaiko Foru Liburutegia-  
ren bitartez, Bizkaidatz literatura-sariaren, “Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da”  
lelopean, helburu nagusitzat du bizkaitarren sormen literarioa bultzatzea

### **Parte hartzaileak**

1) Hamasei urtetik gorako pertsona fisiko orok eman dezakete izena sarian. Horre-  
tarako, jatorrizko lanak aurkeztu behar dira, hau da, aurretiaz argitaratu gabeak: ez zati  
bat, ez osorik. Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarriak guztiz onartzen direla.

Adingabeentzako eskabideak haien guraso-ahala edo legezko ordezkariak duten  
pertsonek berretsiko eta sinatuko egingo dituzte. Edonola ere, adingabeak bete behar  
ditu lerrokadetan ezarritako baldintzak.

2) Gaztelaniazko atalean parte hartzen duten egile pertsonek gutxienez baldintza  
hauetakoko bat bete beharko dute:

Bizkaian jaioak izatea edo, bestela, erroldatuta egotea bertan deialdiko oinarriak  
bildutako foru dekretu argitaratzen denean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean edo deialdiko  
oinarriak argitaratu aurretik urtebetez gutxienez Bizkaian erroldatuta egon izana.

3) Aurreko bi edizioetan lehen edo bigarren saria irabazi duten pertsonek saririk

jaso ez zuten modalitatean bakarrik parte har dezakete aurtengo deialdian (euskaraz edo gaztelaniaz), 2017ko IX. BizkaIdatz sarian.

4) Eskatutako betekizunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean egiaztatu behar dira eta deialdiaren indarraldi osoan bete behar dira.

### **Obren betebeharrak**

1) Sari honetan parte hartu nahi dutenek kontaketa literario bat idatzi behar dute, egungo bi idazlek —batak euskaraz eta besteak gaztelaniaz— proposatutako bi hasieratik abiatuta. Parte-hartzaile bakoitzak nahi duen beste lan aurkez dezake, betiere, idazleek idatzitako kontakizunaren hasierara, pertsonaietara eta bertan planteatzen diren egoeretara egokitzen badira.

2) Parte hartzen duten egile pertsonak euskarazko edo gaztelaniazko narrazioak aurkez ditzakete, eta, epaimahaiak horrela erabakitzen badu, atal bietan izan daitezke irabazle.

3) Narrazioek, gutxienez, **16 orrialdeko luzera izan beharko dute, eta, gehienez, 20 orrialdekoa**. “Times” edo “Arial” letra erabili beharko da, eta A4 tamainako orrietan idatzita. Eta honako ezaugarri hauek gorde behar dituzte: gorputza, 12; espazioa, bikoitza; gutxienez 25 lerro eta gehienez 32 lerro orrialde bakoitzean, eta lerro bakoitzean, gutxienez, 70 karaktere, salbu eta ortografiazko zeinu jakin batzuen aplikazioaren emaitzako salbuespenak.

4) Lehiaketa honetara aurkeztuko diren kontaketek derrigorrez bete behar dute otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoaren arabera emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa.



### **Aurkezteko epea, lekua eta modua.**

1) **2017ko irailaren 22ko 13:30 ordu arte, ostirala**, bukatuko da lanak jasotzeko epea.

2) Eskabideak eredu ofizialean I. Eranskina BI - 1 aurkeztuko dira, eskabide orri bat bete aurkeztutako kontakizun bakoitzeko. Eredu hori <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak> webean eskuratu daiteke eta Bizkaiko Foru Liburutegian, hurrengo erroetan zehazten diren gainerako agiri eta zehazpenekin batera:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia, bai eta, eskatzailea adingabe denean, bere ordezkari legalarena ere, baita legezko ordezkari hori egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

- Obraren lau (4) ale. Ale horiek ez dira sinatu behar, orriak zenbakiturik izan behar dituzte, kontakizunaren izenburua izango dute eta egilearen inolako identitaterik gabe. Koadernatu gabe.

- Parte-hartzailearen ohar biografiko txiki bat, nahi izanez gero.

- Bizkaitik kanpo jaiok izanik gaztelaniazko modalitatean aurkezten direnek bakarrik erroldatze-agiriaren fotokopia.

- Eskatzaileak Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo erroldatuta daudenean, zerga egoitza duten lurraldean, zerga obligazioak beteta dituztela egiaztatzeko agiriak.

3) Bizkaiko Foru Liburutegian aurkeztu behar dira obrak: Diputazio kalea, 7, 48008 - Bilbo. Hala ere, lanak aurkezteko, berdin baliatu daiteke edo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako eran.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak —gorago ezarritako baldintzak bete-  
ta— Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa bidez aurkezteko.

### **Epaimahaia**

Epaimahaia literaturaren eta kulturaren munduko pertsona famatuek osatuko dute, eta haiek emango dituzte sariak, sarira aurkezturiko lanak aztertu ondoren eta honako irizpide hauen arabera: proposaturiko kontakizunarekiko jarraipena eta batasuna (4 puntu gehienez), kalitate literarioa (3 puntu gehienez) eta istorioa garatzen izaniko sormena (3 puntu gehienez). Horren arabera, irabazle suertatu diren kontakizunen eba-  
zpen-proposamena egingo dute. Euskara eta Kultura Sailaren ebazpen baten bitartez izendatuko da epaimahaia, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

### **Saria**

1) Irabazleei sari hauek banatuko zaizkie, bai euskeraz aurkezturiko lanetan bai erderaz aurkezturikoetan: Lehenengo saria: 1.500 euro eta diploma. Bigarren saria: 500 euro eta diploma. Finalista: diploma. Aurreko atalean agertzen diren sari ekonomikoei atxikipen fiskalak egingo zaizkie, legeak ezartzen duenarekin bat.

2) Adingabeek sariren bat lortuko balute, legezko ordezkaritza izango dira — eta ez adingabeak— jasotako kopuru ekonomikoaren onuradunak.

3) Saria jaso duten kontakizunak edizio berezi batean argitaratuko dira.

4) Epaimahaiko kideen iritziz lehiaketara aurkeztutako lan guztien artean batek ere ez baditu beharrezko baldintzak betetzen edo balorazioan ez bada puntuazio nahikorik eskuratu, saria eman gabe geratu ahalko da.

5) Euskara eta Kultura Sailean eskumena duen organoak sarituen berri jasotzen duen ebazpena emango du, epaimahaiaren proposamenaren arabera. Ebazpen hori jakinaraziko zaie parte-hartzaile guztiei. Saridunen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, iragarki baten bidez.

### **Saritutako egilearen betebeharrak**

1) Saridunak eurak joan behar dira sariak banatzeko Bizkaiko Foru Liburutegian, egingo den ekitaldira (ordua eta eguna adieraziko dira), eta, joan ezin badira, ordezkari bat bidaliko dute. Gainera, saria jaso duen kontakizuna euskarri informatikoan eraman behar dute.

2) Saria ordaintzen denetik aurrera, hurrengo bost urteetan Bizkaiko Foru Aldundiak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubi-deak, eta sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko, saria baita ordainsari osoa eta bakarra.

3) Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

“Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du»

edo

“Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

## **Bestelakoak**

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Argitalpenen eta Kultura Jardueren Atalak. Horretarako, helbide hau dago web orrian: [www.bizkaia.eus/laguntzaileKultura](http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKultura).

Oinarri hauek jasotzen dituen foru dekretua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta [www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak](http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak) web-orrian argitaratuko da.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA/ DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA  
EUSKARA ETA KULTURA SAILA • BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA  
Diputazio kalea 7 • 48008 Bilbo  
Tel. 94 406 77 02 • Fax 94 406 70 84

[www.bizkaia.eus/foruliburutegia](http://www.bizkaia.eus/foruliburutegia)